HONDARRIBIKO UDALA

**Esptea.: 2019PLEN0005**
**Erref.: MLI** / AEL

**HONDARRIBIKO UDAL TXIT GARAIAK 2019KO MAIATZAREN 16AN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

**ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE ESTA CIUDAD DE HONDARRIBIA EL DIA 16 DE MAYO DE 2019**

Hondarribiko Hirian, bi mila eta hemeretziko maiatzaren hamaseian, Udaletxe honetako Batzar Aretoan Udalbatza bildu da Txomin Sagarzazu Ancisar Jaun **Alkate-Udalburuaren Lehendakaritzapean** eta ondoren aipatzen diren **Udalkideak** partaide direla:

**Alkateordeak:**

Juan María Altuna Muñoa jna.
Mª Aránzazu Berrotarán Otegui and.
María Serrano Olascoaga and.
Juan Luis Silanes Aguirre jna.
Gotzone Larrarte Campandegui and.

**eta Zinegotziak:**

Edurne Etxeburu Eguia and.
Gonzalo Carrión Insausti jna.
Maite Pelaez Arregui and.
Arantzazu Rojo Gómez and.
Ortzi Alonso Murelaga jna.
Igor Enparan Araneta jna.
Jon Mikel Garmendia Múgica jna.
Carlos Mª Gebara Urkiola jna.
Jesús Ignacio Alvarez Yeregui jna.
Jose Miguel Ochoteco Aguirre jna.

Ezinetorria azaldu du Juan Ortiz Armendariz jaunak

Erabakiak hartzeko nahikoak izanik, bilkura publikoa burutu dute hemeretziak eta bostean, ni, Maria Luisa Izquierdo Marculeta Andrea, Udaleko Idazkaria lagun nautelarik.

Biltzarburuak bilkura hasi eta Eguneko Zerrendan agertzen diren ondoko gaiak aztertu dira:

En la Ciudad de Hondarribia a dieciséis de mayo de dos mil diecinueve, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial, bajo la presidencia del Sr. **Alcalde-Presidente** D. Txomin Sagarzazu Ancisar y con la asistencia de los/as **Tenientes de Alcalde Sres./as.:**

D. Juan María Altuna Muñoa
Dª Mª Aránzazu Berrotarán Otegui
Dª María Serrano Olascoaga
D. Juan Luis Silanes Aguirre
Dª Gotzone Larrarte Campandegui

**y de los Concejales y Las Concejalas Sres./as.:**

Dª Edurne Etxeburu Eguia.
D. Gonzalo Carrión Insausti.
Dª Maite Pelaez Arregui.
Dª Arantzazu Rojo Gómez
D. Ortzi Alonso Murelaga.
D. Igor Enparan Araneta
D. Jon Mikel Garmendia Múgica.
D. Carlos Mª Gebara Urkiola
D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui
D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre.

Ha justificado su ausencia: D. Juan Ortiz Armendariz

Quienes siendo número suficiente se constituyeron en sesión pública a las diecinueve horas y cinco minutos, asistidos/as de mí, la Secretaria, Dña. María Luisa Izquierdo Marculeta.

Abierta la sesión por la Presidencia, se procede a tratar los siguientes puntos del Orden del Día:

**UDALERRIA BATZORDEA**

**1.-MULIATEN BABES OFIZIALEKO 15 ETXEBIZITZAREN ALOKAIRU KUDEAKETARAKO HONDARRIBIKO UDALA ETA ALOKABIDE SAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Muliaten babes ofizialeko 15 etxebizitzaren alokairu kudeaketarako Hondarribiko Udala eta Alokabide SAren arteko hitzarmena onartzeko proposamenari dagokion espedientea aztertu ondoren.

Udal Idazkari andrearen 2019ko maiatzaren 9ko 44/2019 zkiko txostena ikusi ondoren.

2019ko maiatzaren 9ko Udalerria Batzordeko diktamena ikusi ondoren, aho batez honako proposamena Udalbatzara eramatea proposatuz:

LEHENA.- Onartzea ALOKABIDE S.A. sozietate publikoaren eta Hondarribiko Udalaren arteko Lankidetza Hitzarmena babes publikoko eta Udalaren jabetzako 15 etxebizitza kudeatzeko.

BIGARRENA.- Alkate jaunari Zuzenbidez dagokion ahalmenik handiena ematea akordioa betetzeko eta Hitzarmena sinatzeko, kasua bada, baita eskritura publikoan jasotzekoa ere.

2019ko maiatzaren 12ko justifikazio memoria ikusi ondoren.

Alkate jaunak hartu du hitza hitzarmenaren funtsa azalduz eta izapidearen berri emanez. Herritarrak etxeetara ekainean sartzeko asmoa dagoela adierazi du eta Alokabideren alde etxebizitzen ematea lau urtekoa izango dela.

Ondoren, Enparan jaunak hartu du txanda eta etxebizitzen kudeaketa beste enpresa baten esku nola utz daitekeen ulertzea kosta egiten zaiola adierazi du. Bere iritziz, kudeaketa Hondarribia Lantzen SAren esku utzi beharko litzatekeela esan du, baina epe kontuengatik eta beharrezkoa dela

**COMISIÓN MUNICIPIO**

**1.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA Y ALOKABIDE SA PARA LA GESTIÓN DEL ALQUILER DE 15 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL EN MULIATE.**

Visto el expediente relativo a la propuesta de aprobación del convenio entre el Ayuntamiento de Hondarribia y Alokabide SA para la gestión del alquiler de 15 viviendas de protección oficial en Muliate.

Visto el informe nº 44/2019 de 9 de mayo de 2019 de la Sra Secretaria Municipal.

Visto el dictamen de la Comisión Municipio de 9 de mayo de 2019, proponiendo por unanimidad elevar al Ayuntamiento Pleno lo siguiente:

PRIMERO.- Aprobar el Convenio de Colaboración entre la sociedad pública ALOKABIDE S.A. y el Ayuntamiento de Hondarribia para la gestión 15 viviendas de protección pública y titularidad del Ayuntamiento.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde tan ampliamente como sea preciso en derecho para la ejecución del acuerdo y suscripción del Convenio, incluido, en su caso, la elevación a escritura pública.

Vista la memoria justificativa de 12 de mayo de 2019.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para dar a conocer los fundamentos del convenio y el trámite necesario. Señala que la intención es que los ciudadanos y ciudadanas entren en las viviendas en el mes de junio y explica que la concesión de viviendas a favor de Alokabide será para cuatro años.

Seguidamente toma la palabra el Sr. Enparan indicando que le cuesta mucho entender cómo se puede dejar en manos de otra empresa la gestión de las viviendas. Señala que, en su opinión, la gestión habría que dejarla en manos de Hondarribia Lantzen

ikusita, alde bozkatuko duela aurreratu du. Hondarribia Lantzen SAk lau urteren buruan kudeaketari jarraipena emateko nahiko giza baliabide eta bitarteko material izatea espero duela erantsi du.

SA, pero por cuestión de plazos y viendo la necesidad existente, adelanta que votará a favor. Añade que espera que dentro de cuatro años Hondarribia Lantzen SA disponga de los recursos humanos y materiales necesarios para dar continuidad a esta gestión.

Jarraian, Gebara jaunak hartu du hitza eta honako testua irakurri du:

*"Etxebizitzaren beharrari irtenbide bat ematea arazo oso konplexua eta urgentea dela gure herrian, inori ez zaio ezkutatzen. Gaur proposatzen zaigun hitzarmen hau momenturako irtenbide bat izan daiteke eta hala baloratzen dugu, baina ez zaigu nahikoa iruditzen. Denek dakizue EH Bilduk beste etxebizitza politika ausartagoa eta Udalaren eragin handiagoko beharra ikusten duela, irtenbide orokorrago bat (holistiko hitza dirudienez ez dago modan dagoeneko) aztertuko lukeena, hutsik dauden etxebizitzak eta apartamentu turistikoak kontutan hartuko lituzkeena ezinbestean".*

A continuación, toma la palabra el Sr. Gebara y da lectura al siguiente texto:

*"De todos es sabido que el dar una solución a la necesidad de vivienda es un problema tan complejo como urgente en nuestra ciudad. Este convenio que se nos propone hoy puede ser una solución momentánea y como tal la valoramos, pero no nos parece suficiente. Todos sabéis que EH Bildu ve la necesidad de tener una política de vivienda más atrevida y con mayor impulso por parte del Ayuntamiento, una política que estudie una solución más general (parece que ya no está de moda la palabra holístico), y que tenga en cuenta necesariamente las viviendas vacías y los apartamentos turísticos".*

Alvarez jaunak hartu du txanda eta eranskinean azken etxebizitzari dagokion garajerik ez dela ageri azaldu du.

Interviene el Sr. Álvarez señalando que en el anexo no figura el garaje correspondiente a la última vivienda.

Udal Idazkari andreak hitz egin du ondoren eta arduradunarekin bihar bertan hitz egingo duela esan du eta eskatuko diola zuzenketa ere bidaltzea.

A continuación toma la palabra la Sra. Secretaria Municipal y señala que hablará mañana mismo con la persona responsable y que le pedirá que envíe también la corrección.

Alvarez jaunak bere interbentzioarekin jarraitu du eta konpromisoa behar bezala ez dela bete azaldu du; alokairuzko etxebizitza gehiago aurreikusiak zeudela eta azkenean hirurogeita bost ordez hogeita hamahiru direla. Hala eta guztiz ere, alde bozkatuko duela esan du. Etxebizitzen kudeaketari dagokionez, zerbait egin behar dela adierazi du, luzera begira etxebizitzaren arazoari aurre egin ahal izateko.

Continúa con su intervención el Sr. Álvarez indicando que el compromiso no se ha cumplido como es debido porque estaba previsto un mayor número de viviendas de alquiler y que finalmente en lugar de sesenta y cinco viviendas han sido treinta y tres. Señala que no obstante su voto será favorable. En lo que respecta a la gestión de las viviendas, manifiesta que hay que hacer algo para poder hacer frente al problema de vivienda cara al futuro.

Ochoteco jaunak hartu du txanda eta proposamenari ezezko bozka ezin eman diezaiokeela adierazi du aurrerapauso bat denez gero. Hala ere, alokairuzko etxebizitza kopurua handitu beharko litzatekeela esan du. Francisco de Leon jaunak adierazitakoaren arabera, etorkizunean urbanizazio hauei esker sarrera handiak jasoko direla azaldu du Ochoteco jaunak eta horrenbestez, Udalak izango duen finantziazioarekin, Hondarribia Lantzen SAk gaia serio hartu beharko

Toma la palabra el Sr. Ochoteco señalando que no puede votar en contra de la propuesta, puesto que ha habido un avance. De todas maneras, dice que habría que ampliar el número de viviendas de alquiler. A tenor de lo manifestado por el Sr. Francisco de León, señala el Sr. Ochoteco que en el futuro se recaudarán ingresos importantes gracias a estas urbanizaciones, y por lo tanto, con la financiación de la que dispondrá el Ayuntamiento, debería tomar en serio el tema de

lukeela esan du.

Hondarribia Lantzen SA.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza aldeko hamasei botokoa izan da eta aurkakorik gabea.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de dieciséis votos a favor y ninguno en contra.

Ondorioz, **Udalbatzak**, aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad, **ACUERDA:**

**LEHENA.-** Onartzea ALOKABIDE S.A. sozietate publikoaren eta Hondarribiko Udalaren arteko Lankidetza Hitzarmena babes publikoko eta Udalaren jabetzako 15 etxebizitza kudeatzeko.

**PRIMERO.-** Aprobar el Convenio de Colaboración entre la sociedad pública ALOKABIDE S.A. y el Ayuntamiento de Hondarribia para la gestión de 15 viviendas de protección pública y titularidad del Ayuntamiento.

**BIGARRENA.-** Alkate jaunari Zuzenbidez dagokion ahalmenik handiena ematea akordioa betetzeko eta Hitzarmena sinatzeko, kasua bada, baita eskritura publikoan jasotzekoa ere.

**SEGUNDO.-** Facultar al Sr. Alcalde tan ampliamente como sea preciso en derecho para la ejecución del acuerdo y suscripción del Convenio, incluido, en su caso, la elevación a escritura pública.

**2.-ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOA (EIT) EGITEKO ETA HORREN ONDORIOZKO OBRAK BURUTZEKO DIRULAGUNTZA EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

**2.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LAS BASES REGULADORAS DE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA REALIZACIÓN DE LA INSPECCIÓN TÉCNICA DE EDIFICIOS (I.T.E) ASÍ COMO PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DERIVADAS DE DICHA INSPECCIÓN.**

Eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko eta horren ondoriozko obrak burutzeko dirulaguntza ematea arautzen duten oinarriak aztertu ondoren.

Examinadas las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la realización de la inspección técnica de edificios (I.T.E) así como para la ejecución de las obras derivadas de dicha inspección.

Udal Idazkari andrearen 2019ko maiatzaren 3ko 41/2019 zkiko aldeko txostena ikusi ondoren.

Visto el informe nº 41/2019 de 3 de mayo de 2019 de la Sra Secretaria Municipal en sentido favorable.

2019ko maiatzaren 9ko Udalerria Batzordearen diktamena ikusi ondoren, oinarriei hasierako onespena ematea proposatuz eta dagozkion izapideak egin daitezela.

Visto el dictamen de la Comisión Municipio de 9 de mayo de 2019, proponiendo la aprobación inicial de las bases y se proceda a su tramitación correspondiente.

Alkate jaunak hitz egin du eskaera Zerbitzu Teknikoetatik etorri dela azalduz eta gaia maiatzean onartuz gero, 2018ko gai honek aurrera jarraitu ahal izango duela.

Toma la palabra el Sr. Alcalde señalando que la solicitud ha venido de los Servicios Técnicos y que si esta cuestión se aprueba en mayo, este tema del 2018 podrá continuar su camino.

Enparan jaunak hartu du txanda ondoren eta proposamena agian berandu iritsi bada ere, araudia beharrezkotzat jotzen duela aitortu du. Hala eta guztiz ere, kopurua eskasa dela nabarmendu du;

Seguidamente interviene el Sr. Enparan para reconocer que, a pesar de que quizás esta propuesta llega tarde, considera necesario el reglamento. De cualquier manera, subraya que la cantidad le parece

EITrik eratorritako lanengatik %10eko laguntza eskaintzea edo gehienezko 3.000 euroko laguntza ematea ez dela nahikoa, alegia. Jarraian, egoera ekonomiko larrian daudenek horrelako obrei ekin ezin badiete, Udal Gobernuak zer egingo duen galdetu du.

insuficiente, que no le parece suficiente conceder una subvención del 10 % por los trabajos derivados de la ITE o conceder una ayuda máxima de 3.000 euros. A continuación pregunta qué es lo que va a hacer el Gobierno Municipal si las personas que están en una grave situación económica no pueden hacer frente a este tipo de obras.

Alkate jaunak Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza lerro bat duela erantzun du eta Udala horren osagarri dela. Denbora gehixeagorekin aztertu beharreko kontua dela erantsi du.

Responde el Sr. Alcalde que el Gobierno Vasco tiene una línea de subvenciones y que lo del Ayuntamiento es un complemento a la misma. Añade que éste es un tema que habría que analizarlo con un poco más de tiempo.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza aldeko hamalau botokoa izan da, aurkakorik gabea eta bi abstentziokoa.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de catorce votos a favor, ninguno en contra y dos abstenciones.

Alde bozkatu dute: Txomin Sagarzazu Ancisar, Juan María Altuna Muñoa, Mª Aránzazu Berrotarán Otegui, María Serrano Olascoaga, Juan Luis Silanes Aguirre, Gotzone Larrarte Campandegui, Edurne Etxeburu Eguia, Gonzalo Carrión Insausti, Maite Pelaez Arregui, Arantzazu Rojo Gómez, Jon Mikel Garmendia Múgica, Carlos Mª Gebara Urkiola, Jesús Ignacio Alvarez Yeregui eta Jose Miguel Ochoteco Aguirre jaun-andreek.

Votan a favor: D. Txomin Sagarzazu Ancisar, D. Juan María Altuna Muñoa, Dª Mª Aránzazu Berrotarán Otegui, Dª María Serrano Olascoaga, D. Juan Luis Silanes Aguirre, Dª Gotzone Larrarte Campandegui, Dª Edurne Etxeburu Eguia, D. Gonzalo Carrión Insausti, Dª Maite Pelaez Arregui, Dª Arantzazu Rojo Gómez, D. Jon Mikel Garmendia Múgica, D. Carlos Mª Gebara Urkiola, D. Jesús Ignacio Alvarez Yeregui y D. Jose Miguel Ochoteco Aguirre.

Abstenitu egin dira: Ortzi Alonso Murelaga eta Igor Enparan Araneta jaunak.

Se han abstenido: D. Ortzi Alonso Murelaga y D. Igor Enparan Araneta.

Ondorioz, **Udalbatzak,** gehiengoz, **hauxe ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por mayoría, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko eta horren ondoriozko obrak burutzeko dirulaguntza ematea arautzen duten oinarriei hasierako onespena ematea.

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente las bases reguladoras de la concesión de subvenciones para la realización de la inspección técnica de edificios (I.T.E) así como para la ejecución de las obras derivadas de dicha inspección.

**BIGARREN.-** Aipatutako oinarriak hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, baita Udal Oholean ere

**SEGUNDO.-** Someter las bases citadas a información pública por plazo de treinta días hábiles, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en el Tablón de Anuncios Municipal.

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe,

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el

baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.

**HERRITARRAK BATZORDEA**

**3.-FAMILIEI UDAL LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Familiei udal laguntzak emateko oinarri arautzaileak aztertu ondoren.

Udal Gizarte Langile jaunaren 2019ko apirilaren 5eko txostena ikusi ondoren.

2019ko maiatzaren 7ko Alkate Probidentzia ikusi ondoren.

Udal Gizarte Langile jaunaren 2019ko apirilaren 15eko txostena ikusi ondoren.

Kontuan hartuz udal web gune bidez aurretiazko kontsulta publikoa egin dela 2019ko apirilaren 9tik 23ra bitarte eta ez dela herritarren ekarpenik jaso.

Udal Idazkari andrearen 2019ko maiatzaren 7ko 42/2019 zkiko aldeko txostena ikusi ondoren, betiere, hileta gastuei buruz egindako iruzkina kontuan izanda, eta Kontu-hartzaile andrearen aurre fiskalizazioaren kaltetan joan gabe.

2019ko maiatzaren 9ko Herritarrak Batzordearen diktamena ikusi ondoren, oinarriei hasierako onespena ematea proposatuz eta dagozkion izapideak egin daitezela, hileta gastuei buruz egindako iruzkina kontuan izanda.

Berrotaran andreak hitz egin du eta ondorengo testua irakurtzeari ekin dio:

*"Bi batzordetan landu ditugun oinarri hauek Eusko Jaurlaritzaren prestazioen ezaugarri berdintsuak dituzte(Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta gizarte larrialdiko laguntzak). Baliabide ekonomikorik gabeko pertsonei edo familiei zuzenduak, zeinek ezin dituzten jaso aipaturiko laguntzak (beren arautegietan jarritako baldintzak*

**COMISIÓN CIUDADANOS**

**3.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LAS BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS MUNICIPALES A FAMILIAS.**

Examinadas las bases reguladoras de las ayudas municipales a familias.

Visto el informe del Sr Trabajador Social de 5 de abril de 2019.

Vista la Providencia de Alcaldía de 8 de mayo de 2019.

Visto el informe del Sr Trabajador Social de 15 de abril de 2019.

Resultando que procedida a consulta pública previa desde el 9 al 23 de abril de 2019 mediante la web municipal no se han recibido aportaciones.

Visto el informe nº 42/2019 de 7 de mayo de 2019 de la Sra Secretaria Municipal en sentido favorable, si bien con la observación realizada respecto de los gastos funerarios, y sin perjuicio de la fiscalización previa de la Sra. Interventora.

Visto el dictamen de la Comisión Ciudadanos de 9 de mayo de 2019, proponiendo la aprobación inicial de las bases y se proceda a su tramitación correspondiente, teniendo en cuenta la observación realizada respecto de los gastos funerarios.

Toma la palabra la Sra. Berrotaran y da lectura al siguiente texto:

*"Estas bases que hemos elaborado en dos comisiones tienen unas características similares a las prestaciones del Gobierno Vasco (la Renta de Garantía de Ingresos y las Ayudas para Emergencias Sociales). Están dirigidas a personas o familias sin recursos económicos que no pueden recibir las mencionadas ayudas (por ejemplo, por no cumplir los*

*betetzen ez dituztelako, adibidez).*

*Oinarri hauen helburua da pertsona edo familia eskatzaileak, pertsonalizatutako arreta planean aurrikusitako ekintzak egiteak ekar litzakeen behar ekonomikoei erantzuna emateko laguntzak nola emango diren arautzea.*

*Alor ezberdinetako laguntzak txertatuta daude araudi hontan:*

- *Oinarrizko beharrak asetzeko gastuak*
- *Etxebizitza erabiltzeari lotutako gastuak*
- *Osasun arloko beharrak asetzeko gastuak*
- *Garraio beharrak asetzeko gastuak*
- *Adingabe edo mendekotasuna duten pertsonen artapen zerbitzuen gastuak*
- *Helduak gizarteratzea edo lan mundura sartzeko bultzatzeko laguntzak*

*Gizarte langileen esperientzian oinarritzen dira laguntza hauen baldintzak; beharra duen pertsonarekin lan eginez plan pertsonalizatua adostuko da, pertsona hauen etorkizuna hobe kudeatzeko aukera emango duelarik.*

*Oinarri hauek onartzea proposatzen da".*

Hileta gastuei dagokienez, batzordean aipatu bezala gastu horiek 22699 kontutik bideratuko direla esan du. Hortaz, proposatzen diren oinarriak hauek direla adierazi du, baina hileta gastuei 22699 partidarekin aurre eginez.

Ondoren, Enparan jaunak hartu du txanda eta familiei udal laguntzak emateko araudia positibotzat eta beharrezkotzat jotzen dutela esan du. Bere bozka aldekoa izango dela adierazi du.

Gebara jaunak hartu du hitza jarraian eta honako testua irakurri du:

*"Oinarri arautzaile hauei ikusten diegun abantailetako bat bere malgutasunean datzala uste dugu. Beti presente eduki behar badugu norbanako bakoitzarentzat egiten ditugula egiten ditugun araudiak, Gizarte Zerbitzuaren kasuan, ezaugarri*

*requisitos que figuran en sus normativas).*

*El objetivo de estas bases es la regulación de la forma de conceder estas ayudas para dar respuesta a las necesidades económicas que puede acarrear la ejecución de las acciones previstas en el plan de atención personalizada a las personas o familias solicitantes.*

*Este reglamento recoge ayudas de diferentes ámbitos:*

- *Gastos para cubrir las necesidades básicas.*
- *Gastos relacionados con el uso de vivienda.*
- *Gastos para cubrir las necesidades del ámbito de la salud.*
- *Gastos para cubrir necesidades de transporte.*
- *Gastos de atención a menores de edad o personas con discapacidad.*
- *Ayudas para impulsar la inserción social y laboral de personas adultas.*

*Los requisitos de estas subvenciones están basados en la experiencia de los trabajadores y las trabajadoras sociales. Se trabajará con la persona necesitada y se acordará un plan personalizado, posibilitando una mejor gestión del futuro de estas personas.*

*Se propone la aprobación de estas bases".*

En lo que respecta a los gastos funerarios, señala que tal y como se mencionó en la comisión, estos gastos se abonarán de la cuenta 22699. Por lo tanto, añade que las bases que se proponen son éstas, pero que a los gastos funerarios se hará frente a través de la partida 22699.

A continuación, toma la palabra el Sr. Enparan señalando que consideran positivo y necesario un reglamento para la concesión de subvenciones a las familias. Añade que su voto será a favor.

Toma la palabra el Sr. Gebara y da lectura al siguiente texto:

*"Creemos que una de las ventajas que observamos en estas normas reguladoras se encuentra en su flexibilidad. Siempre debemos tener presente que las normativas que hacemos las hacemos para cada individuo, y en el caso de los Servicios Sociales es aún*

*hau areagotu egiten da.*

*Gizarte Zerbitzuen beharra duten pertsonentzako justizia soziala eta ahalik eta azkarren gizartean toki zentralago bat izatea helburu izaki, malgutasuna, diskrekzionalitatea eta teknikarien iritzi kualifikatua ezinebestekoak dira eta bide horretan, araudi hauek aurrerapauso bat izan daitezkeela uste osoa dugu".*

Alvarez jaunak hitz egin du ondoren eta proposamena hobe litekeela adierazi du. Hutsune bat zegoela erantsi du eta nola-hala bete dela. Bukatzeko, egin den lana eskertzekoa dela aitortu du.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza aldeko hamasei botokoa izan da eta aurkakorik gabea.

Ondorioz, **Udalbatzak,** aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

**LEHENENGO.-** Familiei udal laguntzak emateko oinarri arautzaileei hasierako onespena ematea, betiere, hileta gastuei buruz egindako iruzkina kontuan izanda, hileta gastuak 22699 partidaren kontura izanik.

**BIGARREN.-** Aipatutako oinarriak hogeita hamar lanegunez jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean arrgitaratuz, baita Udal Oholean ere

**HIRUGARREN.-** Hartutako akordioa behin betikotzat emango da berriro erabaki beharrik gabe, baldin eta jendaurrean erakusteko epearen barruan inolako erreklamazio edo oharpiderik aurkezten ez bada.

*mayor esta característica.*

*Con el fin de que exista justicia social para las personas necesitadas y para que tengan cuanto antes un lugar más centralizado en la sociedad, la flexibilidad, la discrecionalidad y la opinión cualificada de los técnicos y las técnicas son imprescindibles, y en esa línea pensamos sinceramente que estas normativas pueden suponer un avance".*

A continuación toma la palabra el Sr. Álvarez para señalar que es una propuesta que se podría mejorar. Añade que existía un vacio y que de alguna manera se ha llenado. Para terminar, reconoce que es de agradecer el trabajo realizado.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de dieciséis votos a favor y ninguno en contra.

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno,** por unanimidad, **ACUERDA:**

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente las bases reguladoras de las ayudas municipales a familias, con la observación realizada respecto de los gastos funerarios los cuales serán a cargo a la partida 22699.

**SEGUNDO.-**Someter las bases citadas a información pública por plazo de treinta días hábiles, mediante inserción de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, así como en el Tablón de Anuncios Municipal.

**TERCERO.-** El acuerdo adoptado devendrá definitivo sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo, si durante el plazo de información pública, no se presentaran reclamaciones u observaciones.

**4.-EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA 2018-2022 ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Hondarribiko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2018-2022 aztertu ondoren.

2019ko maiatzaren 9ko Herritarrak Batzordearen diktamena ikusi ondoren, bildutako zinegotziek proposamena Udalbatzara eramatea aho batez onartuta.

Berrotaran andreak hartu du hitza eta honako testua irakurri du:

*"Hondarribiko Udalak 2013ko abenduaren 4an egindako Udalbatzan onartu zuen V. Plangintzaldiari 2013-2017 zegokion Hondarribiko Udalean Euskararen erabilera Normalizatzeko erabilera Plana.*

*Oraingoan, VI. Plangintzaldiaren txanda da, aurrekoaren jarraipena izanik.*

***Plan honen helburuak** hauek izan daitezke:*
- *Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadin bermatzea, betiere hizkuntz eskubideak errespetatuz*
- *Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea*
- *Euskara administrazio barneko lan-hizkuntza izan dadin bermatzea*
- *Hondarribiari dagokion helburu mailakatua, duen indizearen arabera (euskaldunak + ia euskaldunak/2) laugarren helburu mailakatua betetzea dagokio, hau da, bere zereginetan batez ere euskaraz aritzen diren administrazio atalak izatea.*

***Eragin-eremua**: Hondarribiko Udalaren arlo eta zerbitzu guztiak hartzen ditu kontuan. Hasiera batean Udal lanpostu zerrendako 65 langileen datuekin egin zen ausnarketa, eta bigarren fase batean gaur egun Udalean dauden 111 langilek osatu dute lan unibertsoa eta galdetegia guztiei pasa zaie, egoera osotasunean ezagutarazteko. Datu bilketa egin da langileek beraiek aitortutako*

**4.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL PLAN DE NORMALIZACIÓN DE USO DEL EUSKERA 2018-2022**

Examinado el Plan de Normalización de Uso del Euskera 2018-2022 en el Ayuntamiento de Hondarribia.

Visto el dictamen de la Comisión Ciudadanos de 9 de mayo de 2019, proponiendo elevar a Pleno la propuesta adoptada por unanimidad de los concejales asistentes.

Toma la palabra la Sra Berrotarán y procede a leer el siguiente texto:

*"El Ayuntamiento de Hondarribia aprobó en el Pleno Municipal del 4 de diciembre de 2013 el Plan de Normalización del Uso del Euskara en el Ayuntamiento de Hondarribia correspondiente al V periodo de Planificación (2013-2017).*

*En esta ocasión es el turno del VI periodo de Planificación, dando continuidad al anterior.*

***Los objetivos de este plan** son los siguientes:*
- *Garantizar el uso del euskara como lengua de servicio en las relaciones con la ciudadanía, respetando siempre los derechos lingüísticos.*
- *Garantizar el uso del euskara como lengua para las relaciones con otras administraciones.*
- *Garantizar el uso del euskara como lengua de trabajo dentro de la propia administración*
- *El objetivo gradual que corresponde a Hondarribia, según su índice (vascohablantes + casi vascohablantes/2) es el cuarto objetivo gradual, es decir, que haya secciones de la administración en las cuales se trabaje principalmente en euskara.*

***Ámbito de influencia**: Tiene en cuenta todas las áreas y servicios del Ayuntamiento de Hondarribia. En un principio se realizó la reflexión con los datos de 65 empleados y empleadas de la relación de puestos municipales, y en una segunda fase el universo de trabajo ha estado constituido por los 111 empleados y empleadas que hay actualmente en el Ayuntamiento y el cuestionario ha sido remitido a todos y todas, para*

*informazioarekin, eta hemendik zer gaitasun eta zer behar dauden ikusita.*

*dar a conocer la situación en su globalidad. La recopilación de datos se ha realizado con la información ofrecida por los propios empleados y empleadas, y teniendo en cuenta cuáles son las capacidades y las necesidades que hay aquí.*

***Plana** 5 urtetakoa da eta urtez urte kudeaketa plan baten bitartez gauzatuko da. Bertan, 42 normalizazio ekintza 12 eragin esparrutan proposatzen dira.*

***El Plan** tiene una duración de 5 años y se llevará a cabo a través de un plan de gestión anual. En el mismo se proponen 42 acciones de normalización en 12 ámbitos de influencia.*

*Adibidez: errotulazioa eta irudi korporatiboa, jendaurreko ekitaldiak, webgune eta sare sozialak, herritarrekiko idatzizko harremanak, telefonozko harremanak...*

*Por ejemplo: rotulación e imagen corporativa, actividades en público, sitio web y redes sociales, relaciones escritas con la ciudadanía, relaciones telefónicas...*

*Beraz, hurrengo 5 urtetarako Plana onartzera ekartzen da".*

*Por lo tanto, se trae para su aprobación el Plan para los próximos 5 años".*

Enparan jaunak plana berandu datorrela adierazi du, nahiz eta maiatzaren 9an beraiek beraien ekarpena egin zuten. Aurreko plangintzaren betetze maila eskasa izan zela gogorarazi du eta plangintza berriaren helburuak bere osotasunean betetzea nahiko lukeela esan du.

Toma la palabra el Sr. Enparan para decir que el plan llega tarde, a pesar de que ellos realizaron sus aportaciones el día 9 de mayo. Recuerda que el grado de cumplimiento del plan anterior ha sido escaso, añadiendo que le gustaría que se cumplieran en su totalidad los objetivos del nuevo plan.

Normalizazio plana langilegoaren %60ari bakarrik zuzentzea ez zaiola egokia iruditzen azaldu du, hots, plana langile guztiei zuzendu beharko litzaiekeela. Dena den, proposamena ontzat ematen dutela esan du eta alde bozkatuko dutela.

Señala que no le parece adecuado que el plan de normalización se dirija únicamente al 60 % de los empleados y empleadas y que debería acoger a la totalidad de los trabajadores y trabajadoras. De todos modos, indica que acepta la proposición y su voto será a favor.

Jarraian, Gebara jaunak hartu du txanda eta honako testua irakurtzeari ekin dio:

Seguidamente, toma la palabra el Sr. Gebara y da lectura al siguiente texto:

*"Plan hau euskararen erabilerak behar duen bultzada emateko balio dezakeela uste dugu. Lehenik, pisuzko ikerketa batean oinarrituta dagoelako eta baita borondate baten erakusle delako ere. Horrexegatik gure aldeko botoa jasoko du.*

*"Creemos que este plan puede servir para dar el impulso necesario al uso del euskara. En primer lugar porque está basado en un trabajo de investigación de peso y también porque demuestra que existe una voluntad. Por todo ello, votaremos a favor de la misma.*

*Baina esan behar dugu ere, Planaren alde ahulenen artean azpimarratu behar dugula ez azaltzearena zehazkiago zein baliabide gehituko zaizkion Euskara Zerbitzuari hau guztia aurrera eraman ahal izateko.*

*De todas maneras, tenemos que subrayar que entre los aspectos más flojos del plan se encuentra el que no se explique con más detalle cuáles son los recursos que se añadirán al Servicio de Euskara para poder llevar todo esto a cabo.*

*Ardura personal eta kolektiboak behar dituen plan hau aurrera eramateko ezinbestekoak dira Euskara Zerbitzuko talde osoaren inplikazio pertsonala eta hauek giza baliabidez eta baliabide ekonomikoz ondo hornituta egotea".*

*Para poder llevar a cabo este plan que necesita responsabilidades personales y colectivas, es imprescindible la implicación personal de todo el grupo del Servicio de Euskara y que los mismos dispongan de todos los recursos económicos y humanos que sean necesarios"*

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza aldeko hamasei botokoa izan da eta aurkakorik gabea.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de dieciséis votos a favor y ninguno en contra.

Ondorioz, **Udalbatzak**, aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Hondarribiko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana 2018-2022 onartzea.

**PRIMERO.-** Aprobar el Plan de Normalización de Uso del Euskera 2018-2022 en el Ayuntamiento de Hondarribia.

**BIGARREN.-** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari erabaki honen berri ematea.

**SEGUNDO.-**Dar cuenta del presente acuerdo a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

**UDALA BATZORDEA**

**COMISIÓN AYUNTAMIENTO**

**5.-2019KO SOLDATA IGOERA ONARTZEKO PROPOSAMENA**

**5.-PROPUESTA DE APROBACIÓN DE AUMENTO RETRIBUTIVO PARA EL EJERCICIO 2019**

2019ko soldata igoerari dagokion espedientea ikusi ondoren.

Visto el expediente relativo al aumento retributivo para el ejercicio 2019.

2019ko maiatzaren 9ko Udala Batzordearen diktamena ikusi ondoren, aho batez proposatuz Udalbatzara eramatea ondorengo proposamena: onartzea Udalaren zerbitzuan dabilen pertsonalaren ordainsariak ehuneko 2,25ean 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenetatik abiatuta, eta ehuneko beste 0,25 bat 2019ko uztailaren 1eko eraginekin, Barne Produktu Gordinak (BPG) izandako igoera iristen bada edo handiagoa bada prezio iraunkorretan ehuneko 2,5 baino, abenduaren 21eko 24/2018 Errege Dekretu Legearen 3.Bi artikuluan jasotako baldintzetan.

Visto el dictamen de la Comisión Ayuntamiento de 9 de mayo de 2019, proponiendo por unanimidad elevar al Ayuntamiento Pleno la propuesta relativa a la aprobación del incremento de retribuciones del personal al servicio del Ayuntamiento en un 2,25 por ciento respecto de las vigentes al 31 de diciembre de 2018, así como otro 0,25 por ciento con efectos de 1 de julio de 2019, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5 por ciento, en los términos recogidos en el artículo 3. Dos del Real Decreto Ley 24/2018 de 21 de Diciembre.

2019ko maiatzaren 9ko Udala Batzordearen diktamena ikusi ondoren, aho batez proposatuz Udalbatzara eramatea ondorengo proposamena: ordainsari osagarria aldi bateko ezgaitasuneko lehenengo egunetik ezartzea, aipatutako Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Visto el dictamen de la Comisión Ayuntamiento de 9 de mayo de 2019, proponiendo por unanimidad elevar al Ayuntamiento Pleno la propuesta relativa al establecimiento de complemento retributivo desde el primer día de incapacidad temporal, en los términos de lo dispuesto en la Disposición Adicional citada.

Altuna jaunak hitz egin du jarraian eta igoera zertan oinarritzen den azaldu du.

A continuación, interviene el Sr Altuna y explica en qué se basa el incremento.

Proposamena bozkatu ondoren, emaitza aldeko hamasei botokoa izan da eta aurkakorik gabea.

Sometida a votación la propuesta, el resultado de la misma es de dieciséis votos a favor y ninguno en contra.

Ondorioz, **Udalbatzak,** aho batez, hauxe **ERABAKI DU:**

En consecuencia, el **Ayuntamiento Pleno**, por unanimidad, **ACUERDA:**

**LEHENENGO.-** Onartzea Udalaren zerbitzuan dabilen pertsonalaren ordainsariak ehuneko 2,25ean 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenetatik abiatuta, eta ehuneko beste 0,25 bat 2019ko uztailaren 1eko eraginekin, Barne Produktu Gordinak (BPG) izandako igoera iristen bada edo handiagoa bada prezio iraunkorretan ehuneko 2,5 baino, abenduaren 21eko 24/2018 Errege Dekretu Legearen 3.Bi artikuluan jasotako baldintzetan.

**PRIMERO.-**Aprobar el incremento de retribuciones del personal al servicio del Ayuntamiento en un 2,25 por ciento respecto de las vigentes al 31 de diciembre de 2018, así como otro 0,25 por ciento con efectos de 1 de julio de 2019, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5 por ciento, en los términos recogidos en el artículo 3. Dos del Real Decreto Ley 24/2018 de 21 de Diciembre.

**BIGARREN.-** Onartzea ordainsari osagarria aldi bateko ezgaitasuneko lehenengo egunetik ezartzea, aipatutako Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera.

**SEGUNDO.-** Aprobar el establecimiento de complemento retributivo desde el primer día de incapacidad temporal, en los términos de lo dispuesto en la Disposición Adicional citada.

**OGASUN, ONDARE ETA KONTUETARAKO BATZORDE BEREZIA**

**COMISIÓN DE HACIENDA, PATRIMONIO Y ESPECIAL DE CUENTAS**

**6.-2019. EKITALDIKO 1GO HIRUHILABETEKOARI DAGOKION ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEARI ETA MERKATARITZA OPERAZIOETAN DAGOEN BERANKORTASUNARI BURUZKO HIRUHILEKOAREN INFORMAZIOAREN BERRI EMATEA**

**6.-DAR CUENTA DE LA INFORMACIÓN TRIMESTRAL RELATIVA AL PERIODO MEDIO DE PAGO Y A LA MOROSIDAD EN LAS OPERACIONES COMERCIALES DEL 1ER TRIMESTRE DEL EJERCICIO 2019.**

2019ko maiatzaren 2ko Udal Kontu-hartzaile andrearen txostenaren berri eman da, 2019. ekitaldiko 1go hiruhilabetekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epeari eta merkataritza operazioetan dagoen berankortasunari buruzko hiruhilekoaren informazioari buruzkoaz.

Se da cuenta del informe de 2 de mayo de 2019 de la Sra. Interventora Municipal en relación a la información trimestral relativa al periodo medio de pago y a la morosidad en las operaciones comerciales del 1er trimestre del ejercicio 2019.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Ayuntamiento Pleno queda enterado.

HONDARRIBIKO UDALA

Bilkura bukatu aurretik, Alkate jaunak aktak onartzeko legegintzaldiko azken bilkura 2019ko ekainaren 11ko 18:00etan izango dela aurreratu du.

Antes de concluir la sesión, el Sr Alcalde adelanta que la última sesión de la legislatura para la aprobación de actas se celebrará el 11 de junio de 2019 a las 18:00 horas.

**Eta beste aztergairik ez dagoenez, biltzarburuak bilkura amaitutzat eman du hemeretziak eta hogeita hamabostean, neuk ziurtatzen dudan akta hau eginez.**

**Y no habiendo más asuntos que tratar, la presidencia levantó la sesión a las diecinueve horas horas y treinta y cinco minutos, extendiéndose esta acta que certifico.**

**O.E./ Vº Bº**
**ALKATEA/El Alcalde**

HONDARRIBIKO

**Txomin Sagarzazu Ancisar**